

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2025eko AZAROA · 349 zenbakia

***Drogetenitturri-ren
lekukoa hartzeko
sortu da Barrena***





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentse
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatueta:
10:00etatik 14:00etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Bertoko kantuak Herritarron ahotik

Gaia: Ume-kantua

Sagu txiki

(Entzuteko: www.alboka.es)

drogetenitturri.eus

Sagu txiki, sagu politx
ez urten hortik zulotxotik,
katutxua etorriko da...

- Ez nau jango!
- Jango zaitxu!
- Ez nau jango!
- Jango zaitxu!

Sagutxuak urten eban
bere zulotxotik
eta zer ein otsan?
JAN!



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogetenitturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu,
Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal eta Barrena.

LAGUNTZAILEAK:

Patxi López eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Gorka Alzaa, Eneritz Aranburu,
Ander Garciandia, Estibalitz
González, Valentin Mugarza,
Nahia Ruiz Albizuri eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Aimar Ferreiro
eta Unai Gonzalez.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogetenitturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Ander Garciandia · Alemania

“Berlinek hiri alternatiboa izaten jarraitzen du, gentrifikazio basatia gertatzen ari den arren”

Munduko leku ezberdinetan bizi ondoren, Berlinen eman ditu azken hilabeteak Ander Garciandia ermuarrak. Neska-lagunarekin bizi da bertan eta hiriak eskaintzen duen kultur ekintzen aukera zabalaz gozatzen ari da, lana bilatzen duen bitartean.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Zergatik joan zinen?

Nire neska Alemaniakoa da, baina Euskal Herrian ezagutu ginen aurreko urtean. Horren ostean ni Kanadara joan nintzen 9 hilabetez, baina abentura ez zen joan nik espero nuen bezala. Neska-lagunak Berlinera etorri beharra zuen ikasketak amaitzera, eta niri Berlin betidanik gustatu zait: “Bada, tira! –pentsatu nuen–, zortea probatzera joango naiz bertara”.

Orain dela zenbat heldu zinen Berlinera?

Ia bi hilabete daramatzat hemen jada.

Zer egiten duzu han?

Orain arte lan bila ibili naiz, Alemaniako burokraziarekin

“borrokatzen” tramite batzuk ateratzeko, eta hiriaz gozatzen: kultur agenda itzela dauka! Aste honetan bertan, agian lanean hasiko naiz produktu espainolak saltzen dituen gourmet denda batean.

Bertako hizkuntza menderatzen duzu? Ikasten saiatu zara?

Kar-kar-kar, ez, ez, oso zaila da. Berlinen ingelesarekin




ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

JULEN




JULEN IZARRA GARRAIOAK

Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



ondo moldatu zaitezke baino zer edo zer ikastea gustatuko litzaidake, errespetuagatik azken finean. Duolingo plataformari esker zerbaiz ikasi dut: zenbakiak eta zenbait hitz, esaterako, baina ez da nahikoa. Hilabete honetan, etorri berrientzako hizkuntza ikastaro batean hasiko naiz.

Zer egiten duzu aisialdian?

Gustatzen zait kontzertu edo ekitaldi ezberdinak ikustea, edota rodomora joatea hemengo lagunekin. Asteburuan zehar, Turkiako, Arabiako edota bigarren eskuko merkatu asko daude hiriguneko leku desberdinetan, eta asko gustatzen zait bertan erosketak egitea.

Badago bertan zerbaiz oso desberdina dena?

Bai, noski! Hiri alternatiboa izaten jarraitzen du, nahiz eta azken urteotan gentrifikazio basatia gertatzen ari den, eta estilo eta hiri-tribu asko daude. Jendeak ez ditu aurreiritziak ezta nagusitasun begiradak estilo desberdinen aurrean. Adibidez, garraio publikoan

"Ingelesarekin ondo moldatu zaitezke, baina alemana ikasi nahiko nuke, errespetuagatik"

"Wurst, schnitzel edo rinderroulade dira janari tradizionalak, azken hau aza gorriaz lagunduta"



(tren edota autobusaren barruan), jendea alkohola edaten joan daiteke, antzerki performanceak egin, ilea moztu, kozinatu, edota jaiak ospatu, kar-kar, eta garrantzitsuena: ez dago horren aurkako kezarik! Desberdina den beste gauza bat da saunak mixtoak direla, eta jendea guztiz biluzik doala. Kontu horrek harritu ninduen!

Zein da bertako janari tipikoa?

Neska-lagunari galdetu diot, eta pentsakor geratu da hainbat minutu, kar-kar-kar. *Wurst* (saltxitxa), *schnitzel* (txahal xerra ogi arrailetan pasatuta), edota *rinderroulade* dira janari tradizionalak. Azken hau igandetan jaten da normalean, eta aza gorriarekin lagundu ohi da; eskualdearen arabera, patata gazituak, patata-purea edo *klöque*-a ere gehitzen diote.

Faltan botatzen duzu Ermua?

Bai, familia, lagunak eta, batez ere, mendira edota harrira joatea eskalatzeraz. Janaria baita ere. Atzerrian zaudenean eta gauza horiek ondoan ez dituzunean konturatzen zara zelako leku pribilegiatuan bizi garen.

Itzultzeko gogorik?

Jakina, nire etxea da. 30 urte beteko ditut aurrean eta, munduan zehar bizi ondoren, uste dut etxera bueltatzeko unea gertu dudala, baino Berlinen gustura nago, beraz, ikusiko dugu...

XXV. San Martin



Azoka

Euskal Birusa Elkarteak antolatua.
Argazkiak: Dorleta Vidal.



SAN MARTIN AZOKA: SARIAK

Jarraian aipatuko ditugun kideek osatu dute aurtengo epaimahaia: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobidek, Idiazabal Jatorri Izendapeneko Igor Hernándezek, Landa Garapeneko Elkarteko Julen Arzuagak, Euskal Birusa Elkarteko Asier Ibaibarriagak, herriko ordezkaria izan den Nieves Luizirikak, eta Ermuko Udaleko Arri Araiztegik. Beheko argazkietan, epaimahaikide eta saritu guztiak:



FRUTA ETA ORTUARIAK

1. saria:
Jose Antonio Fdez.
(Buenos Aires-
Ermua).



FRUTA ETA ORTUARIAK

2. saria:
Argiñe Rubio
(Txillarre-Elgoibar).



GAZTA

1. saria:
Andoni Padilla
(Otxandio).



GAZTA

2. saria: Gorka Flores
(Arbizu).



OGIA

Luis Mari Osa
(Mañe-Mallabia).



TXILAREZTIA

Mikel Jauregiarzo
(Oñati).



MILA LORE

EZTIA:
Valentin Llona
(Zornotza).



SAGARDOA

Jose Antonio
Bilbao
(Axpe-Markina).



TXAKOLINA

Amaia Aretxabaleta
(Lezama).



AIPAMEN BEREZIA

Maria Pilar Mallabia
(Agarre-Mallabia).

Nieves Lauzirika, epaimahaikidea:

"Oso gustura pasatu nuen goiza!"

Ermuko hainbat elkarteko kide, Nieves Lauzirika ermua-rra izan da herriko ordezkaria San Martin azokako epaimahaian.



Nola jaso zenuen epaimahaikide izateko proposamena?

Euskal Birusetik deitu zidaten, eta sorpresa hartu nuen, ez nekielako horrelakorik egiten zenik. Hala ere, elkartek nigan pentsatu izanak poztu egin ninduen, eta ez nuen izan inolako zalantzarik baietza emateko.

Azoka ikusteko aukera izan zenuen?

Bai, merkatu osoa ikusi genuen, eta gero plazako aterpera joan ginen produktu ezberdinak dastatzeko.

Zer produktu dastatu zenituen?

Ogia, gazta, ezti, txakolina eta sagardoa. Horrez gain, posturik politena edo hobeto apainduta zegoena ere aukeratu genuen guztion artean.

Aipatu dituzun elikagai horietan adituak direnen azalpenak entzun zenituen ere. Zerbait ikasteko aukera izan zenuen?

Bai, oso interesgarria iruditu zitzaidan, eta gauza asko ikasi nituen! Oso gustura pasatu nuen goiza!

Nola baloratzen duzu esperientzia hau?

Nire ustez ona baino hobea izan da. Ez naiz isilik egotekoa eta jende askorekin komentatu dut bizi izandakoa. Gainera orain, zerbait jaterakoan, azoka egunean aipatu zituzten gauzetan jartzen dut arreta.

SAN MARTIN AZOKAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETA: SARIAK

Azokaren harira eta honetan inspiratuta, 23 dende eta tabernek apaindu dituzte beraien erakusleihoak eta mostradoreak, herria bera nolabait dekoratuz. Almu Maesok, Olatz Masiek eta Estibalitz Gonzálezek osatutako epaimahaia herriko kaleetan gora eta bera aritu zen eskaparate politenaren bila.



1. saria

Mayte urdaitegia

Epaimahaiak baloratu zuen eszena oso bat sortzen jakin

zutela, baserri bateko sukaldeko giro epelean sartu ikuslea eta baba-jan baten prestaketarako behar diren osagaiak aurkeztuz, bazkaltzerako nolabaiteko gonbitea luzatuz.

2. saria

Alboka Musika Eskola

Epaimahaiak baloratu zuen konposizioaren orijinaltasuna, argitasuna eta gozotasunaz gain, azokaren ikurra den txerria musikaren kontzeptuarekin lotzen jakin izana.





Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

ERMUA

Ferretaria

Orain

KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

ANBOTO

Burdindegi

943 17 69 76

607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25

ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

EUSKAL JANTZIEN ARGAZKI LEHIAKETA



Irabazlea:
Nahikari Benito.

KALABAZAREN PORRA

320 apustu egin dira aurren, eta kalabazaren bene-
tako pisua inork asmatu ez zuen arren (11,800 kg)
bi lagun oso gertu
ibili ziren (11,750
kg): Virginia
Urreta eta Iván
Sola. Bakoitzak
112 euroko saria
jaso zuen.



TXERRIAREN ERRIFA

1. saria:
400 euro (txerriaren balioa).
Rafael Aldalur (0395 zenbakia).



2. saria:
Bi lagunentzako asteburu pasa landetxe batean.
Antonio Santiago (2678 zenbakia).



KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

zermik
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile
bidezko diseinu elektronikoak garatzen
espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa
da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema
industrialen kontrola eta monitorizazioa
bideratzeko gaitasuna ere badu.





688 61 98 96
 zeharkale 12 bajo
 48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666

EGOITZ FORMOSO col 1675

TXALAPARTA



**Eguneko menua,
 razioak, ogitartekoak,
 pintxo poteoa...**

Erdikokale 13 · ERMUA

Anbre taberna, bizitzaren joan etorrixen testigu

Amaitxu ditzue obrak Anbreko etxaurrien. Ez euezan ondo gure auzotik, Arandoñotik eta Beranoko auzotik, eta Goitondoko poligonotik bide nagusireko sarrera-urteerak. 14 hilebete eta 3,9 milloi euro inbertidute, autopista edarra egin deuskue, lau errail edo karri, sartu, urten eta itxaitteko.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

Aldaketa haundixek jasan dittu inguruek: bidie zabaldu, aparkalekue kendu, autobús geltokixek lekuz aldatu, Izartza erreka gainien zubixe egin, Anbreko bolatokixe zana aparkaleku bihurtu, Mallebiko lehenengo semaforuek be obra hau dala eta ipini ditzue Goitxondoko etxie baino goratsuago. Segurtasune dala eta biherrezko zien aldaketek baina, urte askuen baserri girotik industrializaziorako jauzixan testigu izen dan Anbreko tabernie be aldatu erain dabe.

Angel Zelaieta bertako semiek idatzi baten kontatzen dabenez “Diputazioan peoe-kamireñu ziharduen gazte heldu xamarra ezkontzen zen, etxean neskame zeukaten neskabila gaztearekin”. Josepa Gisasola eta Damian Zelaieta ezkondu zirenien, dote dexente samarra eduki ei eben. Halan, Damianek eta Josepak bidegurutze baten egin eben etxea Arrangizgana bidean.

1933. urtea zan. “Bidegurutzea zegokion deitura” dino Anjel semeak bere idatzian, baina etxeari gailurra emoterako orduen arte-adarra josi eta afaria edo montxorra egittie tokatzen zala-eta, “ez zutela ezkonberriok, edo euron gurasoek afaririk eskaintzen ez iragarten, eta, luze eginda, bromatan edo, “honetxi etxeoni Anbre ipini bijotzau izena”, esaten ei eben etxagintzan ziharduena abadiñar langiliek. Eta halan, 90 urte baino gehixago pasatu diren

“Honetxi etxeoni Anbre ipini bijotzau izena’, esaten ei eben etxagintzan ziharduena langiliek”

honetan Anbre edo Hambre izenez ezagutzen da taberna eta baitte industri poligonoa bera be.

Taberna bat baino gehixago

Ume umetatik ezagutu dot Anbre tabernie. Etxien entzuten genduzan pasadisuek gure amama Josepak eta gure aitxe Santosek kontatute. Taberna izetiaz gain, postarixek kartak bertan izten zitxun, okinek ogixe, barberue be egoten zan zapatu gabetan. Urizar Etxebarriko Gregorio Txurrukak egitten eban barberu, eta mutilek eta gizonak zapatu gabetan ulie ebatera jueten zien. Behin ulie ebaitte, “musien egitten eben gizonak, hori bai, andrak eta neskak etxien”, dino Santos Aranburuk.

“Bonanza ikustera jueten zien domeka arratsaldetan, Bonanza ikusi eta kakahuesak jaten genduzan”, kontatzen dau Santosek, inguruko lehenengo telebisinue Anbren ipini eben-eta. Ezkontzeko sasoi en egozan gaztien despedidak be egitten ziren bertan. Afaldu eta gero dantzan Iñusiñako Modesto



"Taberna izetiaz gain, postarixek kartak bertan izten zitxun, okinek ogixe, barberue be egoten zan..."

Solozabal soinuari zala, inguruko baserrietako mutil eta neska gaztien ezkontzak ospatzeko. Argazki zaharrien dantzan diherdue Aldeko Bixente Aranburuk eta Etxebarriko Bixente Aranburuk alkarri ebatute. Eskuman ageri da Bengoko Eugenio Aranburu eta lepoz gure aittite, Bengoko Gregorio Aranburu. Jarritte dauena Eskineko morroie Isidro Bekutei da.

Uda sasoiaren bejente asko etorten zala esaten dau gure aitek. Etxaurreko zelaixen plataneruek eta mahaixek euezan eta "ermuarrak askotan etortzen ei zien bertan mahaixetan bazkaldu eta errekonduen egunepasatzera". Txakurrek bakunatzera be Anbrera erueten zien sasoi baten, eta agrariako ikastaro eta batzarrak be egiten ziren bertan.

Autobus geltokixe

Anbrera bizikletan bajatu eta gero autobuse hartzen eben baserrietako mutil gaztiekin, baserrietik fabriketara lanera hasi zienien. Bizikletak gordeteko zerbitzue be emoten hasi zien Anbrera. Etxian atzekaldien eukitten zittuen bizikletak gantxuetan txintzilizke eta motorrak be bai, hantxe

gordeta harik eta mutilek etxera bueltatzeko ordu heldu arte, autobusek barriro Anbrera ekarten zitxuen arte. Eta 80-90 hamarkadan ume ginenok Mallabiko eskolara juateko autobusaren zain bertako etxaurrean dauan hormigoizko jarlekuen, ilaran jarritte luze auzoko hamar ume, neu nagusixena. Hasi Atxitxetik eta Aniño goitiraino, hamar ume.

Han egoten zan Rosita Anbreko goiz goizetik langilei kafe eta pintxuek emoten. Eta gu berakin eta bere txakur Zurikin egoten ginen harik eta autobuse etorri arte. Behin, karnabaletan nire neba Arakitz bakero, Atxitxeko Iratxe pailazo eta ni *zingara* jantzitze juen ginen. Rositak kotxien hartu ginuzan eta Irudire erun argazkixek ataratzera. Perretxiko haundi batzuen gainien atara euskuzan argazkixek Irudiko Javi San Ildefonsok. Rositak tabernie laga ebanien Sandrinik



Aldeko Bixente Aranburu eta Etxebarriko Bixente Aranburu, Bengoko Eugenio Aranburu eta Bengoko Gregorio Aranburu, eta Isidro Bekutei.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral97.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casas de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señarans	Pernod Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

aral@aral97.com | Pol. Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINOS
nitida
T.943176075

Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

"Rositak erun gintuzen argazkixek ataratzera, eta perretxiko haundi batzuen gainien atara euskuzan argazkixek Javi San Ildefonsok"

"Taberna honetaraxe bildu zen euskal eskritoreen belaunaldi berria 60. hamarkadako azkenetan"

hartu eban, eta berak ipini eutsen gaur egun etxeko fatxadan "Bar Restaurante Hambre" letra haundi eta gorrixetan.

Bihotz bi, gerrako kronikak

Institutoan irakurri neban Ramon Saizarbitoriaren *Bihotz bi, Gerrako kronikak* liburue. Zelako sorpresie niretzat Anbre taberna aittetzen dabela irakurri nebanien! Anjel Zelaietak bere idatzixen aipatzen dau "taberna honetaraxe bildu zen euskal eskritoreen belaunaldi berria, 60. hamarkadako azkenetan". Besteak beste, "Ramon Saizarbitoria eta beronen emaztegaia. Eibartarra berau eta, batzar egunez gain ere, joan ohi ziren Hanbre tabernara, arrautzak txirixoarekin jaten". Gaur egun poligonoko enpresetako langilek, kamiolariek eta pasiantiek ikusiko doguz bertan arrautzak txorizoarekin jaten edo kafetxo bat



hartzen. Eta inguruko auzoetako gizonak egunero bazkalosteko kafia hartzen, pelota kontuak, baserriko zereginak eta eguneroko pasadizuak komentatzen.

OSTEOPATIA
Pablo Lucena
617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXERN EGINDAKO TXORIZO ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa
GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 - Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN
Komentukua, 6 behe 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Maiatzaren 23an burutuko da 2026ko 7 Pago Mendi Lasterketa

Mallabiko 7 Pago Mendi Lasterketaren antolatzaileek ezagutzera eman berri dute noiz izango den 2026ko hitzordua: maiatzaren 23an, hain zuzen ere, eta laster zabalduko dute ere hirugarren edizio horretarako izena emateko epea. Proba hau Durangaldeko Koparen baitan egongo da 2026an ere.



Abenduaren 21ean Aitatxo dokumentala ikusteko aukera egongo da Frontoian

Mallabian bizi den Anakotz Lasarte berri-tarrak sustatutako *Aitatxo*. Isiltasuneko ahotsoa dokumentala abenduaren



21ean izango da ikusgai herriko frontoian. Aurretik, abenduaren 11n, Gasteizko Europa Jauregian izango da. Dokumental honek aitaren ikuspuntutik aztertzen du dolua, benetako lau bizipenen bidez. Proiektuaren sare sozialetan irakurri daitekeenez, dokumentalean agertzen diren lau gizon horiek erakusten dute mina nola bizi izan zuten, nola egin zioten aurre eta aurrera nola jarraitu zuten, isilpeko emozioei ahotso emanez: "Modu honetan, gizona ezkoak ahulak ere badirela erakutsi nahi dugu, izan ere, gizonak beti gogor egon dira plantak egiten. Azken finean, gizonen mina emakumearen berdina dela erakutsi nahi da, biak maila berean jarritz", azaldu dute parte-hartzaileek.



Jon Albizu
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



Horacio Decoración
TAPICERÍA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK



VI Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com

Bitsi-denda Tailor propioa Erleja-denda



Senén
1978

Disenatuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



Hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu
Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

juanano10@yahoo.es
Ermua (Bizkaia)

TAXI 

Juanan
635 70 90 90

Eskerrik asko Droget zuen aletxoak jarri guzti-guztionei



enitturri duzuen i!

DROGETENITTURRI ALDIZKARIA 17




Hurrengo portuan elkar ikusiko dugulakoan...

Azken-azken 349. zenbaki honekin *Drogetenitturri* 36 urteko ibilbide oparoari egiten dio agur eta, itsaso berriak zeharkatu behar dituen itsasontzi legez, prest ditu motoreak aro hau amaitu eta hurrengokoari hasiera emateko. Txalupa jaio zen 1989an, dozenaka herritarren bultzadari esker uretaratu zena, baina handik gutxira anbizioaren hegoek astinduta, belauntzian eraldatzen jakin zutena, profesionaltasunaren, erakundeen dirulaguntzen eta publizitatearen diru-sarrereri esker haizatuz. Hilabeteka neurtu dira bere zeharkaldiak eta ale bakoitzak portu desberdin batera garraiatu du irakurlea, leku eta une zehatz horretan zeresana zuten herritarren eta gertakarien berri jasoz.

Ur gaineko bitsetan egin ditu milia ugari, baina noizean behin, zelan ez, marea bizien zurrunbiloetatik nabigatu behar izan du, barearen ostean sarri datorrelako ekaitza. Ezagutu ditu denborale

eskasak, enbatak eta eskala ez txikiko itsasikararen bat ere, branka eta popa aldetik astindu zuena, behea jo ez jo, enkailatuko eta urperatuko ote zen beldur. Izandako zailtasunei, kritikei, desadostasunei eta krisialdiei aurre egiteko gerrako akorazatuan bihurtu behar izan da sarritan, irmo eutsiz bere ildo editorialari



"Hilabeteka neurtu dira bere zeharkaldiak eta ale bakoitzak portu desberdin batera garraiatu du irakurlea"



Lantaldeko zenbait kide, 1993ko San Martin azokan.



Ezkerretik hasita, Iñaki Arregi, Elena Leonardo eta Luis Mari Malaxetxebarria, aldizkariaren sustatzaileetako batzuk.

eta kale egin barik argitaratzearen konpromisoari. Kosta ala kosta, ur gainean beti!

Patroi lanetan bost gidari ezagutu ditu eta urteen zeharreko eskifaia 228 marinel kolaboratzailek osatu dute: artikulugile, argazkilaria, komikigile, marrazkilaria, iritzi-emaile, sukaldari, biologo, zinema eta literatur zale, musikagile, sexologo, zientzialari, maketatzaile, publizista, banatzaile, administrari... Konta ezineko denda, taberna, enpresa eta ikastetxek hileroko publizitatearekin lagundu diote ur azalean mantentzen, eta ezinbesteko bizi-arnas izan ditu udalen eta erakunde jakinen diru-ekarpenak.

Euskara, Ermua eta Mallabia izan dira *Drogetenitturriren* erdiko masta eutsi duten hiru zutabeak eta harro, oso harro sentitzen da euskarari, Ermuari eta Mallabiari egin dien ekarpenaz eta uzten dien legatuaz: argitara eman dituen 8.000 orritik gorakoetan, azken 36 urteotako egunerokotasuna idatzita izatea, bi herrietako 36 urteotako historia gordetzen dutenak.



Aldizkariak 30 urte bete zituen 2019an, eta argazki honetan ikusi daiteke garai hartako lantaldea.



2007ko urrian 150. zenbakia argitaratu zen, argazkian agertzen diren kolaboratzaileen lanari esker.

Tokiko ur txikietan arrantzatu du orain arte, baina itsaso zabalagoak zeharkatzeko gonbitea jaso du, *Barrena* izeneko transatlantiko ederra bihurtuz.

Txalupa jaio zenetik bagaje izugarria pilatu du bere bodegetan eta, jakitura hori soinean, dardarti batzuetan, gogotsu besteetan, badoa portu berri baterantz. Asebeteta, hori bai, atzera begirako une honetan zeharkaldiaren aberastasunez eta ederrez jabetuta, eta zirrara bereziarekin sortarazten diolarik jakiteak 2025 honetan, *Barrena* astekarira eraldatzean, Bizkaiko tokiko hedabide zaharrena izatearen ohorea duela, dekanoa, 90. hamarkadako aldizkariaren loraldi haren azken lekukoa.

Batari agur, besteari ongi etorri!

Milia ugariko itsasaldia izan dezazula, *Barrena*!



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



www.quetzalmoda.com
Zubiaurre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065

Abenduaren 19an kaleratuko dugu bailarako komunikabide berria: *Barrena*





Geu izaten jarraitzeko

Ermuko Euskal Birusa, Soraluzeko Pil-pilean, Elgoibarko Izarra eta Debako Zuhatza Euskara Elkarte

Abenduaren 19an Barrena astekaria eta *Barrena.eus* webgunea argitaratuko dira eta aurrerantzean bertan jarraitu ahalko dira Ermuko, Mallabiko eta Debabarreneko gainontzeko herrietako berriak. Egun horretatik aurrera, beraz, *Barrenak* emango dio jarraipena *Drogetenitturri* aldizkariak eta *Drogetenitturri.eus* webguneak azken 36 urteotan tokiko aktualitatea lantzen egindako lanari. Barrena komunikazio proiektua bultzatu duten lau euskara elkarteek ondoko mezu bateratua kaleratu dute debabarrendarrei zuzenduta.

Euskara eta euskal kultura biziberritzea da euskara elkarteon egitekoa; horretarako jaio ginen eta ahalegin horretan dihardugu. Ahalegin horrek emaitza onak ekarriko baditu, ezinbestekoa da adiegotea gizartearen aldaketei eta haren arabera egokitzea eta berritzea elkarteon jarduna eta proiektuak, kasu honetan, hedabideak.

Gauregun hedabideek berebiziko garrantzia dute komunitategintzan eta hedabideen mundua oso azkar ari da aldatzen. Adituek iragartzen dutenez, datozen urteetan are azkarrago aldatuko da. Ondorioz, euskarazko tokiko hedabideek berri beharra daukate gure komunitatearen oinarri izaten jarraitzeko eta, hain zuzen, horixe da *Barrena*, elkarrekin euskarazko hedabideak berritzeko abiatu dugun proiektua.

Marraztu dugun komunikazio proiektuak egitura indartsuagoa eta profesionalagoa izango du,

eduki multimedia gehiago eskaini ahalko ditu, eskaintzak urrunago hedatzeko aukera emango die komertzioei eta oro har difusio eta inpaktu handiagoa izango du debabarrendarron artean. Duen dimentsiogatik, *Barrena* izan daiteke azken urteotan Debabarrenean euskara biziberritzeko abiatu den ekimenik garrantzitsuenetakoa, garrantzitsuena ez bada.

Beraz, aurrera begiratu eta bideari elkarrekin ekingo diogu. Elkarrekin euskara elkarteak, euskaltzaleak, herrietako eragile sozialak eta komertzialak, erakunde publikoak, errealitate bihurtzeko debabarrendarrok behar dugun hedabidea, berritzailea eta euskalduna.

Horregatik, dei egiten dizuegu orain arte herrietako hedabideen irakurle, kolaboratzaile, laguntzaile eta komunitateko kide izan zareten herritar eta eragile guztioi, babestu eta balia dezazuen *Barrena*, mundu zoro honetan geu izaten jarraitzeko.

“Aurrera begiratu eta bideari elkarrekin ekingo diogu”

“Babestu eta baliatu ezazue Barrena, mundu zoro honetan geu izaten jarraitzeko”

Batu eta berritu

Debabarreneko tokiko lau hedabidek —Mallabiko eta Ermuko *Drogetenitturri*-k, Soraluzeko *Pil-pilean*-ek, Elgoibar eta Mendaroko *Barren*-ek eta Debako *Berriketan*-ek— indarrak batu eta bailarako komunikazio proiektu berria eratu dute: Barrena.

"barren

DROGETEN
ITTURRI

Berriketan

Pil-pilean



2025eko irailean Barrenak eta Arrate Irratiak lankidetzatza hitzarmena sinatu dute. Arrate Irratiak leku propioa izango du *Barrena.eus*-en eta bertan entzungai izango dira irratiko saiorik esanguratsuenak.

Produktuak (abendua 19tik aurrera)

Astekaria paperean

Barrena astekariak 32 orrialde izango ditu eta Debabarreneko herri guztietako informazioa eskainiko du. Ermuak eta Mallabiak tarte finkoa izango dute bertan, eta herritarrek etxean jaso ahalko dute astekaria harpidetza bidez, orain arte bezala.

Barrena.eus agerkari digitala

Webgune bateratuak bailarako eta herriz herriko aktualitateari egingo dio jarraipena. Gaur egun bezala, herritarrek bertan kontsultatu ahal izango dituzte albisteak, agenda, eskelak, komunitatea...



Helburua

Komunikazioaren mundua eta herritarren kontsumo ohiturak oso azkar ari dira aldatzen. Horiek horrela, *Barrenaren* helburua da herritarren beharrei behar bezala erantzungo dien hedabide berritzailea izatea, erreferentea debabarrendarren artean.

TOKIKOA

BERRITZAILEA

**2020ko
iraila**



Bilera
Gipuzkoako Foru
Aldundiarekin

Gogoeta
prozesua



Elkarlana ehuntzen
(Albiste trukea, inbertsio plan bateratuak,
formakuntza saioak)

**2023ko
abendua**

Bailaratzearen
aldeko hautu
estrategikoa

“Azken urteotan Debabarrenean euskara biziberritzeko bultzatu den ekimenik garrantzitsuenetakoa da”

Ermuko Euskal Birusa, Soraluzeko Pil-pilean, Elgoibarko Izarra eta Debako Zuhatza

Egitura berria

Lau euskara elkarteek Barrena Komunikazioa Koop. S. eratu dute 2025eko irailean. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da eta gobernantza publiko-sozialaren bidez kudeatuko da, hiru eragile nagusiren partaidetzarekin: euskara elkarteak (bazkide erabiltzaileak), langileak (lan-bazkideak) eta udalak (bazkide kolaboratzaileak). Eratzte prozesua amaitutakoan, hiru eragileok gidatuko dute elkarrekin bailarako hedabidearen jarduna.

“Orain arte egindakoa asko da, baina orain arte egindakoa egiten jarraituta ez dugu aurrera egingo”

Jon Sarasua • Euskararen Gogoetagunea



Komunitatearekin batera

Barrenarentzat komunitatea helburu eta bitarteko da aldi berean. Komunitateari zerbitzu egokia eskaini ahal izateko ezinbestekoa da harekin batera lan egitea. Herritarrek, euskaltzaleak eta herrietako eragileak dira *Barrenari* benetako indarra emango diotenak. Barrenakide egitea izango da parte hartzeko eta abantailak eskuratzeko moduetako bat.



Egitura eta elkarlana indartu

Bateratze prozesuaren diseinua

2025eko iraila

Barrena kooperatiba eratu




Hitzarmen estrategikoa Arrate Irratiarekin

2025eko abenduak 19

Barrena astekaria eta webgunea **kalean!**



Elorreta pasatuta, hodeien gainetik eta Urkoren azpitik.
Argazkilaria: Jabi Vidal.



Olaizola ferreterixia

Tren geltoki onduan kokatuta, 1946. urtian zabaldu zeban Imanol Olaizola Alegriak eta, orduko denden estilora, danetik saltzen zan bertan: etxerako gauzak, jateko kontuak, drogerixako produktuak, ferreterixakuak... Bardin topau zeinkian han barruko erropak, txokolate panalak zein gailletak, txanpua edo oillotokixetarako alanbre-saria, metroka saltzen zana basarrixetarako eta txaboletarako. Alanbre-arantzaaduna be erruz saltzen zeben, baiña ezin zanez manipulau, pieza osua emoten zan. Torlojuak, ultzak, arandelak, tirafonduak, zerradurak, atxurak, segak, esne-marmidak... herriko taillarren, etxien edo baserrixen egunerokotasunian bihar ziranak hantxe eskuratu zeinkiazan.



1972. urtian Mikel semia jarri zan dendian kargu eta 1980an, ekaiñaren 19an, beste denda bat zabaldu zeben Baldespina Markesaren kalia, Zubiaurrera begira, baiña bakarrik drogeria eta lurrindegia modura. Gerora Arantza Izagirre bikotekidia be kargotuko zan dendiaz eta horretan dihardu.



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44




LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

 @LEYTHEBARBER
C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)



Mursegok "Sukramarkus" ikuskizuna eskainiko du azaroaren 29an

Maite Arroita jauregi musikari eibartarrak Markos Gimeno k a s m a t u t a k o p a l i n d r o m o e t a n o i n a r r i t u t a k o e m a n a l d i a s o r t u z u e n J o s e b a S a r r i o n a n d i a k e s k a t u t a , e t a a z a r o a r e n 29 a n , l a r u n b a t a , E r m u a n a u r k e z t u k o d u (s a r r e r a d o a n) . M u r s e g o e z i z e n a z e z a g u n a d e n m u s i k a r i a k a z a l t z e n d u e n e z , " S u k r a m a r k u s ' o r d u e t a p i k u k o *txoua* d a " , e t a G i m e n o k e g i n d a k o l a n a o m e n t z e k o m o d u a e r e b a d a . I z a n e r e , i z e n b u r u a b e r a p a l i n d r o m o a d a , e t a e g i l e e r m u a r r a r e n i z e n a b e s t e k o n t z e p t u b a t e k i n n a h a s t e n d u : " *shukran* h i t z a k *eskerrik asko* e s a n n a h i d u a r a b i e r a z , e t a m o d u z o r a g a r r i a d a M a r k o s i e s k e r r a k e m a t e k o s o r t u z u e n m a t e r i a l g u z t i a g a t i k " , e s a n d u A r r o i t a j a u r e g i k . E u s k a l B i r u s a E l k a r t e K u l t u r a l a k a n t o l a t u t a k o e k i n t z a h a u " S o r t u k o d i r a " e k i m e n a r e n b a i t a n k o k a t z e n d a , e t a E r m u k o U d a l a r e n b a b e s a d u .



Euskal pop kulturaren gaineko hitzaldia egingo da Berbetan Jardunaldien baitan

"Euskal pop erradikala. Existitzen da pop kulturarik euskaraz?" izenburua dauka Onintza Legorburuk (Antzuola, 1993) gidatuko duen hitzaldiak. Abenduaren 17an, asteazkena, burutuko da Lobiano Kulturunean, 18:30ean, eta sarrera doakoa izango da. Ikerlari honen arabera, "espazio transfeminista informaletako kultur adierazpenetan, bertso saioetan, kabaretetan, musika taldeetan... euskal folkloreaken esanahi berri baten bidez, Euskal Pop Kultura berri bat sortzen ari da", eta hori izango da bere hitzaldiaren abiapuntua. Euskal Birusak antolatutako Berbetan Jardunaldiak ekimenak euskararekin lotutako gaiak mahaigaineratzen ditu, gogoeta sustatzeko helburuarekin, eta Ermuko Udaltzairenen babesa du.



Zure publizitatea
DROGETEN
ITTURRI
943 17 93 50
688 63 28 76
drogeten@gmail.com

Zuri egokitzen
den odontologia
La odontologia
que se adapta a tí
SAN Pelayo
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Dra. M. 1284
PADI Programa Ayuda
Dental Infantil
943 17 04 04
info@clnicasanpelayo.com
San Pelayo zeharbidea 5 - ERMUA

SAGARDUI
poltsak
Zubiurre 20 - ERMUA - 943 170305

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behe
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



1947

E R M U A

Avelina Acha Arana, bere Alicia, Jose Antonio eta Alberto seme-alabekin erretratatuta Orozkoneko baserri parean, Errebal kalean zegoena. Gerra garaian alargundu zen Juan

Clemente González Delaviuda madrildarrez eta haren amaieran euron Eibarko etxea errekitatuta topatu ostean, Ermua hartu zuten bizileku, Errebalen. Arma Probaderoan egiten zuen lan gazte-gaztetatik eta goiz ibili behar izaten zen ordurako ailegatzeko, zorionez jatorduaeren ardura kenduta: Orozkonean etxe-etxekoa zen eta haien sukaldeko txapa gainean lagatzen zuen lapikoa, goiz osoan bor-bor eta nork zaindu zuela, eguerdirako prest seme-alabak etxeratzen zirenerako.



1955

M A L L A B I A

Argazki hau 1955eko udazkanean atera zuten Trabaku Goikoan, Fabiana Sarasua eta Jose Manuel Ostolazaren urrezko ezteiak ospatu zituzten egunean. Beñe baserrian bizi eta gero Eibarera bizitzera joan ziren, eta batzuk kamioian etorri omen ziren ospakizunera, Transportes Ibarako kamioian. Solozabal, Barruetabeña eta Ostolaza abizenak askotan

errepikatzen direnez, abizenaren lehen letra erabili dugu argazkian agertzen direnak identifikatzeko: Pedro Manuel B., Edurne S., Martina B., Agustin S., Edurne O., Dolores B., Jesusa B., Hilario S., Carmen Gerrikabeitia, Bittor O., Paulina O., Juan O., Pascual Garitagoitia, Luis Fernandez, Eusebia O., Jose Maria B., Patxi Ibarra, Maria O., Manuel Ibarra, Lourdes O., Serapia S., Jose Antonio O., Simona Gerrikabeitia, Angela O., Josefa O., Ernesto Fernandez, Jose Manuel O., Fabiana Sarasua, Agustina O., Jose Maria Gerrikabeitia, Carmen O., Eugenio S., Agustina O., Angel Gerrikabeitia, Ignacio S., Anastasia O., Arantxa Ibarra, Mari Asun Fernandez, Agustin Fernandez, Javier Garitagoitia, Mertxe Garitagoitia, Gloria B., Arrate Gerrikabeitia, Esteban Gerrikabeitia, Maria O., Migel Ibarra eta Angel B.

Eskerrik asko 18 urte hauetan atal honetarako argazkiak utzi dizkiguzuenoi, eta bertan agertzen ziren pertsonak identifikatzen lagundu diguzuenoi.

IRAGARKI LABURRAK

SALEROSKETAK

Baserria erosiko nuke
Ermuan edo inguruan
688 642 761 (Asier)

LAN ESKAINTZAK

Erizaintzako laguntzailea
behar dugu berehala lanean
hasteko, ordezkapen
baterako. Astean 2 edo
3 arratsalde. Bidali CVa
niklinika@gmail.com edo
deitu 943030512/688629223

Higienista/auxiliarra
behar da haurdunaldiko
baja baten ordezkapena
egiteko Ermuko hortz klinika
batean. Uztailetik abendura,
lanaldi osorako. Bidali CVa
hortzclinika.4@gmail.com

LAN BILA


DBH eta Lehen Hezkuntzako
matematikak, euskara eta
beste ikasgaietako klaseak
ematen ditut arratsaldez.
C1 ingelesa eta euskara.
688739358



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Abenduaren 10a**.



Abenduaren 15ean
Zorionak **Unax**, zure
7. urtebetetzean!
Disfrutatu pila eta
jarraitu hain alai eta
saltsero! Familia osoak
maite zaitugu pila!



Azaroaren 25ean
Zorionak **Ander**!
7 kandela zure
pasteltxoan, zu bai
mutil handixa! Gozatu
zure egunaz, gure
gizontxo alaia! Patxo
eta besarkada erraldoi
bat, Uxueren partez
berezik!



Abenduaren 3an
Zorionak **Danel**,
mutil handi!!! 4 urte!
Ez galdu inoiz irrifar
polit hori. Muxu eta
besarkada potolo bat
aita, ama eta familiako
guztien partez. Pila bat
maite zaitugu!



- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

MUSIKA ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com



SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BARRERAKO
ORDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

ileapaindegia

Silvia

peluquería

Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474



688819336

ZINEA

Hilak 1:
"The Mastermind"
Hilaren 6tik 8ra:
"Die my love + "Los tigres"
Hilaren 13tik 15era:
"Gaua"
+ "Siempre es invierno"
Hilaren 20tik 22ra:
"Nuremberg" + "Singular"
Hilaren 27tik 29ra:
"Golpes" + "Dracula"
Ermua Antzokian.

ZINE-KLUBA

Hilak 4:
"Bugonia"
Hilak 11:
"La voz de Hind"
Ermua Antzokian. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 7:
"Cuerpos locos"
Hilak 14:
"Super Elflkinak" (euskaraz)
Hilak 21:
"Misión Santa"
Hilak 28:
"Zootrópolis 2"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 12:
Kontzertua: Santero y Los Muchachos. 20:30ean. Ermua

Antzokian. Sarrera: 12 €.
Hilak 16:
Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:00etan. Ermua Antzokian. Doan.
Hilak 20:
Blues kontzertua: The 44 Dealers. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 10 €
Hilak 20:
Gabon-kanten kalejira, Pispillu abesbatzarekin. 19:30etatik aurrera, plazatik.

ANTZERKIA

Hilak 19:
"Macho grita", Alberto San Juanekin. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12 €
Hilak 26:
"El bar nuestro de cada día", Chipi La Canallaren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12 €

DANTZA

Hilak 5:
"Los perros", Led Silhouette konpainiaren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 19 €.
Hilak 17:
Txindurri taldea. 17:30ean. Ermua Antzokian. Doan.
Hilak 19:
Taupada Dantza Eskola. 19:30ean. Merkatu plazan.

ERAKUSKETAK

Hilaren 1etik 14ra:
Argazkiak: "2025eko oporrak" lehiaketara aurkeztutako lanak. Lobianon. Lanegunetan, 18:00-20:00. Asteburuan, 12:00-14:00.
Hilaren 15etik 29ra:
Margoak: Santiago Mateosen lanak. Lobianon. Lanegunetan, 18:00-20:00. Asteburuan, 12:00-14:00.

GABONETAKO HAUR KANPAINA

Hilak 20:
Ermuchef: sukaldeko ekitaldia. 16:00etatik 19:00etara. Plazan.
Hilak 24:
Olentzero eta Mari Domingi txiki (kalejira). 11:00etatik aurrera, plazatik irlanda.
Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra:
Gabonetako parkea: ohe elastikoak, puzgarriak, ludoteka, bideo-konsolak, jumping, tailerrak... 11:00-13:00 eta 16:00-20:00. Sarrera: 2 €
Hilak 27:
Haurrentzako antzerkia: "Semaforoa", Logela Multimediaren eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4 €.

Hilak 30:
Zirku ikuskizuna: ZKZ 25 Topaketa. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 5 €
Hilak 31:
Olentzero (kalejira). 18:00etatik aurrera, plazatik.
Urtarrilaren 2an:
Kontzertua: "Goazen 12.0", Pausokaren eskutik. 17:00etan eta 19:00etan. Antzokian. Sarrera: 6 €.
Urtarrilaren 5ean:
Errege Magoen kabalgata. 18:00etatik aurrera. San Lorenzo ikastetxetik.

UMEENTZAKO BESTE EKITALDI BATZUK

Hilak 13:
Ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Udal Liburutegian.
Hilak 20:
Ipuin-kontaketa. 17:30ean. Udal Liburutegian.

BESTELAKOAK

Hilak 13:
Eskilarapeko: 20. urteurrenaren jaia. 12:00etatik aurrera. Eskilarapekon eta Plazan.
Hilak 27:
Kanpai-jotze aurrerapenjaia. 17:00etatik. Plazan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Otro Plan

como en casa

Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia




**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA


Desde 1971
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
ZORU ERRADIATZAILEA
AEROTERMIA

Erakusketa 943 17 15 56
Tallerra: 635 998 881
fontanerivalle@gmail.com
Golenkale z/g (15 zkiaren parean)
ERMUA

PERTSIANAK


ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tallerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ITURGINTZA


24 orduko zerbitzua
ITURGINTZA
KONPONKETAK
GREMIO GUZTIAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81

ERROTULAZIOA


Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36
www.rotekrotulos.com

ROTEK
LED PANTAILAK

ITURGINTZA

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA


PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26 · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA


ELECTRICIDAD
BETA^{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak

- Berokuntza
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea
ERMUA

943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

berbetan

jardunaldiak

euskararen gaineko gogoetak

HITZALDIA

EUSKAL POP ERRADIKALA

*Existitzen da Pop
kulturarik euskaraz?*

ABENDUAK

17

asteazkena

LOBIANO
KULTUR
GUNEAN
18:30ean

(POP) KULTURA

Hizlaria:

ONINTZA LEGORBURU LARREA

Espazio transfeminista
informaletako hizkuntza ideologiak
ikertzen dabil bere doktorego tesian
gaur egun.



Ikerlariaren arabera, espazio
transfeminista informaletako kultur
adierazpenetan, bertso saioetan,
kabaretetan, musika taldeetan...
euskal folklorearen berresanahitze
baten bidez, Euskal Pop Kultura berri
bat sortzen ari da